

# Tolosako Abesbatza Jaialdia 2020

urriak 25 oct. - azaroak 01 nov.



Antolatzailea
Organizador

Tolosako Ekinbide Etxea
Centro de Iniciativas de Tolosa

Babesleak
Patrocinadores

| | |
|---|---|
| Ohorezko Lehendakaria | Excmo. Sr. D. Iñigo Urkullu |
| Presidente de honor | Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria |

| | |
|---|---|
| Ohorezko Batzordea | Excmo. Sr. D. Markel Olano |
| Comité de honor | Gipuzkoako Foru Aldundiko ahaldun nagusia |
| | Excmo. Sr. D. Bingen Zupiria |
| | Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua |
| | Ilma. Sra. Dña. Olatz Peon |
| | Tolosako Alkatea |

| | |
|---|---|
| Batzorde exekutiboa | D. Aitor Imaz |
| Comité ejecutivo | D. Luis Miguel Espinosa |
| | D. Xabier Ormazabal |
| | Dña. Idoya Otegui |

| | |
|---|---|
| Batzorde teknikoa | D. Enrique Azurza |
| Comité técnico | D. Javier Busto |
| | D. Josu elberdin |
| | D. Xabier Sarasola |

## JAIALDIKO BATZORDEAK / COMITÉS DEL FESTIVAL

| Batzorde | Kideak |
| --- | --- |
| Batzorde Artistikoa / Comité Artístico | Luis Miguel Espinosa<br>Xabier Ormazabal |
| Koordinazio Orokorra / Coordinación general | Imanol Aramendi<br>Raquel Etxabe<br>Aitor Imaz<br>Amaia Perales |
| Administrazioa / Administración | Asun Vildarraz<br>Arantxa Larrañaga<br>URD Aholkularitza |
| Harreman publikoak / Relaciónes públicas | Idoya Otegui<br>Ana Lopetegi |
| Komunikabideak / Medios de comunicación | Rosa Izquierdo<br>Juanma Goñi<br>Xabier Ormazabal |
| Argazkiak / Fotografía | Iñigo Royo |
| Azafatak / Azafatas | Marei Azafatas |
| Eszena koordinazioa / Coordinación Escena | June Abasolo<br>Sara Aguirrezabala<br>Irati Balda<br>Maider Belver<br>Edurne Gabarain<br>Lucia Guerra<br>Irati Hartsuaga<br>Irati Jometon<br>Lorea Martínez<br>Ane Movellán<br>Iara Ugartemendia |

## LAGUNTZAILEAK / COLABORADORES

Agua de Insalus

Herrikide Ikastetxea

Santa Clara Komentua

Aita Frantziskotarrak

Santa Maria Parrokia

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea



# Aurkezpena

## Presentación

Aurtengo lehiaketa lotua genuen urtero legez maila altuko nazioarteko hainbat talderekin. Mundu osoko ordezkariak genituen zerrendan, EEBB, Indonesia, Filipinak, Hego Korea, Errusia… Baina mundu mailako osasun egoera larriak baldintzatuta, hankaz gora jarri zizkigun gure hasierako planak.

Hala ere, argi genuen gure lanak aurrera jarraitu behar zuela eta Luis Miguel Espinosa eta Xabier Ormazabal talde buruek JAIALDI ederra antolatu digute.

Urteroko bisitari eta entzule zareten guztiok merezi duzuelako, Tolosako Abesbatza Lehiaketaren sustraietara salto egiten duen Jaialdi bat antolatu da aurtengoan. Hasierako sorburu hartara, bertako taldeak gonbidatuaz.

Etxeko hainbat talde erreferente izango ditugu datozen egunetan oholtza gainean, beti ere gure lehiaketak lortu duen nazioarteko ospe eta maila hori mantentzen saiatuaz.

Hala nola, ahots taldeak, ganbera abesbatzak, gogoz lanean dabiltzan abesbatza gazteak… guztiak, izen handiko musikagileen lanak eskainiko dizkigutelarik: Bach, Brahms, Fauré, Guerrero, T.L. de Victoria, Martin… eta nola ez gaur egungo musika.

Ea mundu osoko osasun egoera kontrolatzea lortzen den, eta datorren urtean Tolosako Abesbatza Lehiaketa ilusio eta gogoz antolatzeko moduan gauden.

Bitartean, guztiak arduratsuak izanik eta gure aldetik osasun eta segurtasun baldintza guztiak beteaz, aurtengo gure opariaz gozatu. Arimak asetu eta GURE abesbatzen lan ederrak gogoz txalotu.

Como todos los años, el concurso de este año estaba vinculado a varios grupos internacionales de alto nivel. En la lista teníamos representantes de todo el mundo, EEUU, Indonesia, Filipinas, Corea del Sur, Rusia… Pero ante la grave situación de salud mundial, tuvimos que postponer el concurso al año que viene.

Sin embargo, teníamos claro que nuestro trabajo tenía que seguir adelante y el comité artístico compuesto por Luis Miguel Espinosa y Xabier Ormazabal ha organizado un precioso FESTIVAL.

Este año se ha organizado un Festival que vuelve a las raíces del Certamen Coral de Tolosa, ya que todos los visitantes y asistentes de cada año se lo merecen. Hemos invitando a coros locales a participar en el Festival, tal y como lo hicieron hace más de 50 años, en los inicios del Certamen.

En los próximos días subirán al escenario coros nacionales que intentarán mantener ese prestigio y nivel internacional que ha alcanzado nuestro concurso.

Grupos vocales, coros de cámara, coros juveniles… todos ellos, con obras de compositores de renombre como Bach, Brahms, Fauré, Guerrero, T.L. de Victoria, Martín… y cómo no la música actual.

Esperamos que se consiga controlar la situación de salud en todo el mundo y que el año que viene estemos en condiciones de organizar con ilusión y ganas el Certamen Coral de Tolosa.

Mientras tanto, siendo todos responsables y cumpliendo por nuestra parte todas las normas de seguridad y prevención, os invitamos a disfrutar de nuestro regalo de este año. Disfrutad y aplaudid con entusiasmo las hermosas interpretaciones de NUESTROS coros.

Aitor Imaz Larreta

Tolosako Ekinbide Etxeko Presidentea

Presidente del Centro de Iniciativas de Tolosa



# Egitarau Orokorra

## Programa general

# EGITARAU OROKORRA / PROGRAMA GENERAL

## Urriak 25 de Octubre, Santa Maria Eliza (19:30)

REQUIEM, Op.48

(Gabriel Fauré)

HODEIERTZ ABESBATZA & OROITH ABESBATZA

## Urriak 30 de Octubre, Leidor Aretoa (20:00)

BACH ISPILUAREN AURREAN / BACH ANTE EL ESPEJO

CONDUCTUS ENSEMBLE

## Urriak 31 de Octubre, Leidor Aretoa (12:30)

Ipuin musikalak / Cuentos musicales

HURKUS ERREMENTARIA / ZER DUZU, LAIKA?

(David Azurza)

GAUDEAMUS ABESBATZA & ENSEMBLE KURAIA

## Urriak 31 de Octubre, Leidor Aretoa (20:00)

REQUIEM ALEMANIARRA / REQUIEM ALEMÁN

(Johannes Brahms)

KUP TALDEA

## Azaroak 1 de Noviembre, Leidor Aretoa (12:30)

“MUNDUTIK ETXERA, ETXETIK MUNDURA”

“DEL MUNDO A NUESTRA CASA, DESDE NUESTRA CASA A TODO EL MUNDO”

SUHAR KORUA

## Azaroak 1 de Noviembre, San Frantzisko Eliza (16:45)

F. Guerrero, T.L. de Victoria, A. Lobo

A. Donostia, P. Dusapin, T. Takemitsu

MEZA BI ABESBATZENTZAT / MISA PARA DOBLE CORO

(Frank Martin)

KEA AHOTS TALDEA & EL LEÓN DE ORO

## Azaroak 1 de Noviembre, San Frantzisko Eliza (20:00)

IN MEMORIAM

EUSKAL HERRIKO GAZTE ABESBATZA


Urriak 25 Octubre
Santa Maria Eliza, 19:30

# Requiem de Fauré

1888an estreinatua, Fauréren Requiemak generoaren tradizio erromantikoarekin hautsi zuen, ordura arteko tremendismotik eta heriotzarekiko beldurretik ihes eginaz, eta obra desberdin bat sortu zuen, Faurék berak honela deskribatu zuena: “honelaxe ikusten dut nik heriotza: askapen zoriontsu bat da, goragoko zoriontasun batera iristeko nahia, eta ez esperientzia negargarri bat”.

Estrenado en 1888, el Requiem de Fauré rompe con la tradición romántica del género, que abunda en el tremendismo y en el horror a la muerte, para crear una obra diferente, que el propio Fauré resume de este modo: “así es como veo yo la muerte: como una feliz liberación, una aspiración a una felicidad superior, antes que una penosa experiencia”.

# Oroith eta Hodeiertz abesbatzak




Ordiziako Oroith eta Tolosako Hodeiertz abesbatzek antzeko ibilbideak egin dituzte duela 35 urte sortu zirenetik. Biak hala biak a capella ahots-musikan espezializatu dira, musika garaikidea eta euskal folklorea lehenetsiz.

Bi taldeek hainbat sari jaso dituzte Estatu mailako lehiaketetan (Ejea de los Caballeros, Avilés, e.a.) eta baita ere nazioarteko txapelketetan (Tolosa, Varna, Debrecen, Gorizia, e.a.).

2006an elkarlan bati ekin zioten, eta Monteverdiren Gabon Bezperak obra prestatu zuten Barroko Aire ziklorako. Aurrerago, egitarau bera aurkeztu zuten 2007an, Donostiako Musika Hamabostaldiko Antzinako Musika zikloan.

Handik aurrera, lankidetza gehiago garatu dituzte konpositore desberdinen obrak lantzeko: abesbatza bikoitzerako Cantus Missae, Rheinberger-ena, edota Steve Dobrogosz-ek abesbatza, piano eta sokazko orkestrarako idatzitako Mass obra.

Esperientzia horiek guztiek izandako arrakastak bultzaturik, 2010ean Tolosako Nazioarteko Lehiaketan parte hartu zuten elkarrekin, hirugarren saria lortu zutelarik folklore modalitatean. Gainera, aukera izan zuten lehiaketarako prestatutako egitaraua eskaintzeko Euskal Herri osoan, Burgosen nahiz Cagliari-ko (Sardinia) Nazioarteko Concordia Vocis Jaialdian.

Tolosako Lehiaketan sari partekatu hura irabazi zutenetik hamar urte igaro diren honetan, Oroith eta Hodeiertz abesbatzek berriro batuko dituzte euren kantarien ahotsak COVID-19aren pandemiak utzi dituen biktimen omenez, eta musikaren historian inoiz idatzi den Requiem ederrenetako bat eskainiko die, Gabriel Fauréren Requiema, hain zuzen.

Los coros Oroith de Ordizia y Hodeiertz de Tolosa han llevado trayectorias en paralelo desde su fundación, hace ahora 35 años. Ambos coros se han especializado en la música coral a capella, dando prioridad a la música contemporánea y al folklore vasco.

Las dos agrupaciones han sido premiadas en certámenes nacionales (Ejea de los Caballeros, Avilés, etc.) e internacionales (Tolosa, Varna, Debrecen, Gorizia, etc.).

En 2006 abordan conjuntamente para el ciclo Barroko Aire las Vísperas de Navidad de Monteverdi, programa que es ofrecido después en 2007 en el ciclo de Música Antigua de la Quincena Musical Donostiarra.

Posteriormente lo hacen con la Cantus Missae, misa para doble coro a capella de Rheinberger, y con Mass del compositor Steve Dobrogosz, para coro, piano y orquesta de cuerda.

Animados por el éxito de esas experiencias, en 2010 participan en el Concurso Internacional de Tolosa, logrando un tercer premio en la modalidad de folklore. Dicho programa se ofreció también por todo el País Vasco, Burgos y en el Festival Internacional Concordia Vocis de Cagliari, en Cerdeña.

Diez años después de su premio compartido en el Festival de Tolosa, Oroith Abesbatza y Hodeiertz Abesbatza vuelven a unir sus voces para homenajear a las víctimas de la pandemia COVID-19 a través de uno de los Requiem más bellos de la historia de la música, el Requiem de Gabriel Fauré.

## Julen García, baritonoa

Kantua ikasten hasi zen Bilboko Koral Elkartean, Marta Ubieta sopranoarekin, eta, gaur egun, gradu profesionaleko ikasketak burutzen ditu Juan Crisostomo Arriaga kontserbatorioan, Olatz Saitua irakasle eta sopranoarekin.

Klase magistralak jaso ditu; Nuria Orbea, Miguel Olano, Mikeldi Atxalandabaso, Ana Begoña Hernandez, David Menendez eta Juan Jesus Rodriguez irakasleekin besteak-beste. Gaur egun, bere teknika hobetzen du Marta Ubieta sopranoarekin eta Fernando Latorre baritono-baxuarekin.

Bakarlari bezala Bilboko Koral Elkartean egin zuen debuta, Fauré-ren Requiemarekin. Ordutik, bakarlari gisa parte hartu du EOS, OSPA, Suhar Korua, Arabako Abesbatza Sinfonikoa eta Zozoak Abesbatzarekin, besteak beste.

Comienza a estudiar canto en la Sociedad Coral de Bilbao, con la soprano Marta Ubieta y actualmente, realiza los estudios de grado profesional en el conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga con la soprano y profesora Olatz Saitua.

Ha recibido clases magistrales de nombres como Nuria Orbea, Miguel Olano, Mikeldi Atxalandabaso, Ana Begoña Hernández, David Menéndez, Juan Jesús Rodríguez, entre otros. En la actualidad perfecciona su técnica con la soprano Marta Ubieta y el barítono-bajo Fernando Latorre.

Debutó como solista en la Sociedad Coral de Bilbao, con el Requiem de Fauré. Desde entonces, ha participado como solista con diferentes agrupaciones como la OSE, la OSPA, Suhar Korua, Coro Sinfónico de Álava y Zozoak Abesbatza, entre otras.

## Julia Blasco Aramburu, sopranoa

Donostian jaio eta bere lehenengo pausoak Donostiako Orfeoiaren haur eta gazteen abesbatzetan ematen ditu. 2018an Javier Santacana irakaslearekin musika ikasketak hasiko ditu, eta gaur egun Donostiako Orfeoiko kide eta ohiko bakarlaria da. Bakarlari gisa Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu du, eta Orfeoiko kontzertuetan Auditorio Nazionalean eta Kursaalean, Fauré-ren Requiema ere interpretatuz.

Nace en San Sebastián y da sus primeros pasos en los coros infantiles y juveniles del Orfeón Donostiarra. Comienza a formarse en el estudio del canto en 2018 con el profesor Javier Santacana. Actualmente es integrante del Orfeón Donostiarra y habitual solista. Ha participado como solista en el Festival Quincena Musical de San Sebastián, y en conciertos del Orfeón Donostiarra en el Auditorio Nacional y en el Auditorio Kursaal, interpretando también el Requiem de Fauré.

## Gerardo Rifón, organoa

Donostian jaio zen, 1962.ean. Mariaren Bihotza ikastetxean hasi zen musika ikasten, Aita Sierra zuzendariarekin, hain zuzen. Musika ofizialari dagozkion ikasketak, Donostiako kontserbatorian hasi eta Baionan bukatu zituen, Bernardette Carrau organoirakaslearekin. 1995. urtean, Tribunaleko parte-hartzaile guztien adostasunez, "Medaille d'Or" jaso zuen. 1980.urtetik Donostiako San Ignacio elizako organojolea da Gerardo Rifón. Ahots eta instrumentu talde ugarirekin kolaboratzen du Euskal-Herrian baita zenbait Espainako hiriherritan ere. Gaur egun, oso lotura handia du Donostiako Orfeoiarekin.

Nacido en San Sebastián en 1962, comienza su trayectoria musical en la escolanía del Corazón de María, de la mano de su director, el claretiano Padre Sierra. Inicia los estudios musicales en el conservatorio de su ciudad natal, concluyéndolos en el de Baiona, con la profesora de órgano Mme. Bernadette Carrau. En1995 obtiene la Medaille d'Or de fin de carrera por unanimidad del Tribunal.

Desde 1980 es organista de la Parroquia de San Ignacio de San Sebastián. Colabora con numerosas formaciones vocales e instrumentales, destacando en este aspecto su vinculación con el Orfeón Donostiarra.

## Katrin Iturralde

Ordiziako Oroith Abesbatzaren zuzendaria da 2000. urteaz geroztik. Goi-mailako ikasketak egin zituen Donostiako Musika Kontserbatorioan, abesbatzen zuzendaritzan. Horrez gain, goi-mailako tituluak ditu orobat pianoan, konposizioan, lengoaia musikalean eta harmonian, eta erdi-mailako gradua kantuan.

Es titulada superior de Dirección de Coros por el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián. Posee además el título superior de piano, composición, lenguaje musical y armonía, y el grado medio de canto. Dirige el Coro Oroith de Ordizia desde 2000.

## Enrique Azurza, zuzendaria



Tolosako Hodeiertz Abesbatzaren zuzendaria da 1985 urtetik. KEA Ahots Taldeko zuzendari eta Bilboko Koral Elkarteko zuzendari artistikoa ere bada 2016tik. Gainera, kantu koraleko irakaslea da Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegian.

Dirige desde 1985 el coro Hodeiertz de Tolosa. Director del Grupo Vocal KEA y director artístico de la Sociedad Coral de Bilbao desde 2016. Es profesor de canto coral en el Centro Superior de Música del País Vasco.


Urriak 30 Octubre
Leidor Aretoa, 20:00

# Bach ispiluaren aurrean / Bach ante el espejo

## Egitaraua / Programa:

JESU, MEINES LEBENS LEBEN, BuxWV 62,
Dietrich Buxtehude (Alemania, 1637-1707)

HERR, WENDE DICH UND SEI MIR GNADIG
Johann Christoph Bach (Alemania, 1642-1703)

WAS GOTT TUT, DAS IST WOHLGETAN, PWV 487
Johann Pachelbel (Alemania, 1653-1706)

CHRIST LAG IN TODESBANDEN, BWV 4
Johann Sebastian Bach (Alemania, 1685-1750)

Oso gutxi, edo, hobeto esanda, ia ezer ez dakigu, Bachen bizitzako lehen urteez, eta are gutxiago nerabe bizitza gorabeheratsuan zehar izan zuen prestakuntzaz eta formakuntzaz.

Baina, iritsi zaizkigun apurren artean, Bachen biografo guztiak bat datozen zerbait dago, autodidakta izan zela, berak ikasleei errepikatzen zien bezala, miresten zituen musikarien partiturak kopiatuz konposatzen ikasi zuela: Johann Christoph Bach, Johann Pachelbel eta Dietrich Buxtehude musikari miresgarri horien artean zeuden.

Johann Christoph Bach osabaren partiturak kopiatu zituen, eta idatzi zuen “konpositore sakona, familiako adierazkorrena” zela. Johann Pachelbelen musika Johann Christoph anaiaren etxean ezagutu eta kopiatu zuen -haren aitaorde eta familiako laguna zena-, eta 400 kilometro baino gehiago egin zituen oinez Dietrich Buxtehude ezagutzeko, haren musika erabakigarria izan zen bere bilakaeran.

Jarraian aurkezten den programak omenaldi txiki bat egin nahi die konpositore handi horiei -neurri handi batean, ezezagun handi horiei-, eragin zuzena izan baitzuten, askorentzat garai guztietako konpositorerik handiena denaren garapenean.

Muy poco, o mejor dicho casi nada, es lo que sabemos de los primeros años de la vida de Bach, y aún algo menos de lo que fue su formación a lo largo de su azarosa vida de adolescente.

Pero de entre lo poco que sabemos hay algo en lo que coinciden todos los biógrafos de Bach y es el hecho de que fue autodidacta, que –tal y como él mismo repetía a sus alumnos- aprendió a componer copiando partituras de los músicos que admiraba: Johann Christoph Bach, Johann Pachelbel y Dietrich Buxtehude estaban entre esos músicos admirados.

Copió partituras de su tío Johann Christoph Bach de quien dejó escrito que era “un profundo compositor, el más expresivo de la familia”. Conoció y copió la música de Johann Pachelbel en casa de su hermano Johann Christoph, de quien era padrino y amigo familiar, y, viajó más de 400 kilómetros a pie para aprender de Dietrich Buxtehude, cuya música resultó ser decisiva en su evolución como compositor.

El programa que seguidamente se presenta es un pequeño homenaje a esos grandes compositores -en gran parte también grandes desconocidos- que de una manera directa influenciaron en el desarrollo del que para muchos es el más grande compositor de todos los tiempos.

# Conductus Ensemble

Conductus Ensemble musika elkartea 2002an sortu zuen Andoni Sierra zuzendariak. Ordutik, 150 kontzertu baino gehiago eskaini ditu hainbat aretotan, hala nola Madrilgo Auditorio Nazionalean, Bilboko Euskalduna Jauregian edo Donostiako Kursaal Auditorioan; nazioarteko jaialdietan, hala nola Toulouse les Orgues Nazioarteko Jaialdian, Donostiako Musika Hamabostaldian edo Cuencako Musika Erlijiosoaren Astean; eta hainbat denboraldi ta ziklotan, Kursaal Fundaziokoan, Riojaforum Auditorioan edo Madrilgo Auditorio Nazionalean, beste askoren artean.

Kritika espezializatua eta publikoa bat etorri dira formazio honi aho batez emandako txaloan; izan ere, kontzertu bakoitza esperientzia berezi bat izan da beti publikoarentzat eta bere musikarientzat, Errenazimendutik XX. mendera bitarteko 100 programa desberdin baino gehiago osatzen dituzten maisulanez betetako errepertorio zabal bat irizpide historizisten bidez interpretatuz.

Bere hurrengo konpromisoen artean Johann Sebastian Bachen Kantaten Integralaren interpretazioa, Beethovenen Sinfonien Integrala eta bere Do maiorrean Meza nabarmentzen dira, baita Wolfang Amadeus Mozarten do minorrean idatzitako Meza ere. Guzti honetaz gain, datorren irailan eta Vocalia Taldearekin batera, "Le Muse Veneziane" izeneko proiektuari hasiera emango diote: Vivaldiren garaian, Ospedaleetarako idatzitako musikak.

La Asociación musical Conductus Ensemble es una formación vocal e instrumental fundada en el año 2002 por su director, Andoni Sierra. Desde entonces ha ofrecido más de 150 conciertos en salas como el Auditorio Nacional de Madrid, el Palacio Euskalduna de Bilbao o el Auditorio Kursaal de San Sebastián; en festivales internacionales como el Festival Internacional Toulouse les Orgues, la Quincena Musical Donostiarra o la Semana de Música Religiosa de Cuenca; y en ciclos como el de la Fundación Kursaal, el del Auditorio Riojaforum o el del Auditorio Nacional de Madrid entre otros muchos.

Crítica especializada y público han coincidido en el aplauso unánime a esta formación cuyo empeño ha sido siempre hacer de cada concierto una experiencia especial para el público y para sus propios músicos a través de la interpretación con criterios historicistas de un amplísimo repertorio repleto de obras maestras que van desde el Renacimiento al Siglo XX y que configuran más de 100 programas diferentes.

Entre sus próximos compromisos destaca la interpretación de la Integral de las Cantatas de Johann Sebastian Bach, la Integral de las Sinfonías de Beethoven y su Misa en Do Mayor, así como la Misa en do menor de Wolfang Amadeus Mozart además de un proyecto junto al Coro Vocalia titulado "Le Muse Veneziane", interpretando una selección de músicas escritas para los Ospedale de Venecia en tiempos de Vivaldi.



## Andoni Sierra, zuzendaria

Donostian, 1971ean jaioa, erdi mailako musika ikasketak egin zituen bere jaioterriko Musika Kontserbatorioan eta goi mailakoak, Madrilgo Real Conservatorio de Música eta Musikenen. Pianoan, Klabizenbaloan, Musikaren Teorian eta Orkestra Zuzendaritzan goi mailako tituluduna da, Jorma Panula, Maciej Pikulski, Jacques Ogg edo Enrique García Asensio bezalako irakasleekin ikasi izanaz.

Conductus Ensemble eta Koruko Andre Maria Musika Kaperaren sortzailea eta zuzendaria da, eta talde horiei lotu die bere ibilbidea. Sortu zenetik, 150 kontzertu baino gehiago eskaini ditu, ia 100 programa desberdinekin. Programa horien artean, Errenazimentutik XX. mendera bitarteko koru-literaturako maisulanak eskeini ditu, hala nola Monteverdiren Vespro della Beata Vergine, Bachen si minorrean Meza, Brahms-en Requiem-a edo Britten-en Saint Nicolas Kantata.

2015etik Errenteriako Andra Mari Abesbatzaren zuzendaria da, eta Manfred Honeck, Philippe Herreweghe, Paul Goodwing edota Robert Treviño maisuekin lan egin du.

Nacido en San Sebastián en 1971, cursó sus estudios de música de grado medio en el Conservatorio de Música de su cieudad natal y los de grado superior en el Real Conservatorio de Música de Madrid y en Musikene. Es titulado superior en Piano, Clavicémbalo, Teoría de la Música y Dirección de Orquesta, habiendo estudiado con profesores como Jorma Panula, Maciej Pikulski, Jacques Ogg o Enrique García Asensio.

Es fundador y director de Conductus Ensemble y de la Capilla de Música Santa María del Coro, agrupaciones a las que ha ligado su trayectoria y con las que desde su fundación ha ofrecido más de 150 conciertos con casi 100 programas diferentes que incluyen obras maestras de la literatura coral del Renacimiento al Siglo XX como son las Vespro della Beata Vergine de Monteverdi, la Misa en si menor de Bach, el Réquiem Alemán de Brahms o la Cantata San Nicolás de Britten.

Desde el año 2015 es director de la Coral Andra Mari de Rentería a la que ha preparado para trabajar con maestros como Manfred Honeck, Philippe Herreweghe, Paul Goodwing o Robert Treviño.




Urriak 31 Octubre
Leidor Aretoa, 12:30

En colaboración con Kuraia / 27º Encuentro de Música Contemporánea

# Zer duzu Laika? / ¿Qué pasa Laika?

Musika: David Azurza

Hitzak: Bernardo Atxaga

Narratzailea: Andoni Aleman eta Miren Beloki

Instrumentistak: Kuraia Ensemble, Andrea Cazzaniga, zuzendaria
(Gorka Catediano, perkusioa / Sergio Barranco, klarinetea / Iker Urreta, tronpeta)

Abesbatza: Gernikako Gaudeamus korala / Julia Foruria, zuzendaria

Zuzendaria: David Azurza

Estreinu data: Tolosa, 2020ko urriak 31

Iraupena: 20'

Bernardo Atxagak haurrentzako erderaz idatzitako testu batean oinarrituta Zer duzu Laika? astronomiari afinizionatua den neskatxo baten hausnarketa bat da: gauero neskak Laika bere txakurtxoa ateratzen du paseatzera eta bere buruari galdetzen dio ea non ote dagoen lheengo Laika, ilargira lehenengo aldiz bidaiatu zuen errusiako txakurra. Bizitzari eta bertan topatzen ditugun zailtasunei buruz hausnarketa eder bat.

Basado en un texto de Bernardo Atxaga, escrito para niños originalmente en castellano, ¿Qué pasa Laika? es una reflexión que realiza una niña aficionada a la astronomía que pasea a su perrita Laika todas las noches sobre qué pudo haber sucedido con la primera Laika, la perrita rusa que viajó a la Luna en el primer viaje tripulado. Una bella reflexión sobre la vida y cómo afrontar las dificultades que nos trae.

# Hurkus Errementaria / Hurkus el Herrero

Musika: David Azurza

Hitzak: Joxemari Iturralde

Narratzailea: Andoni Aleman

Instrumentistak: Kuraia Ensemble, Andrea Cazzaniga, zuzendaria (Iker Urreta, tronpeta, / Maria Zubimendi, akordeoia / Xabier Calzada, flauta / Gorka Catediano, perkusioa / Belén Fernández, cello / Sergio Barranco, klarinetea)

Abesbatza: Gernikako Gaudeamus korala / Julia Foruria, zuzendaria

Zuzendaria: David Azurza

Estreinu data: 2012.05 Errenteriako Musikastean

Iraupena: 35’

Hurkus errementari bakarti bat da. Basoan bizi da urruti dagoen etxe batean. Nahiko zatarra izan arren bihotz onekoa da. Mailu eta txinpartaz inguraturik bizi da Argos bere txakurra eta Perroket, bere loroaren laguntzarekin. Herriko jendeak esaten du Hurkus gaiztoa baino gaiztoagoa dela eta alfer hutsa. Iritzi zital hauek infernura iristen dira. Satanek Hurkus infernura ekarri ahal izateko deabru bat bidaltzea erabakitzen du, hain gaiztoa bada. Baina Hurkus tipo azkarra da.

Lana musikalki inspiratua da, une batzuetan arriskua hartzen duena eta oso entretenigarria. Zalantzarik gabe, ekarpen moderno eta baliotsua da euskal abesbatza-musikarako.

Hurkus es un herrero solitario que vive en una casa apartada en el bosque. De maneras algo toscas, sin embargo, es buena persona. Vive trabajando entre chispas y martillos acompañado por su perro Argos y su loro Perroket. La gente del pueblo dice de él que es muy arisco, muy malo y un vago redomado. Estas opiniones llegan hasta el infierno. Satanás, viendo que dicen que es tan malvado, decide enviarle a Hurkus un diablo para que se lo lleve al infierno. Pero Hurkus es un tipo muy listo.

La obra es musicalmente inspirada, arriesgada por momentos y desde luego muy entretenida. Sin duda una moderna y valiosa aportación al repertorio coral vasco







Ilustrazioak: Pablo Azurza

# Gaudemus korala



Gernika-Lumoko Gaudeamus Korala 1994an sortu zuen Julia Foruriak, koruaren zuzendariak. Egun, taldea 55 haur eta gaztek osatzen dute, zeinak musikala koralaz gozatzen duten hainbat estiloz osaturiko egitarau zabala abestuz.

Hasieratik hartu du parte estatuko eta nazioarteko jaialdi anitzetan, eta hauetan lehen postuan geratu izan da: Antigua Abesbatzak Jaialdia, Abesbatzen Lehiaketa Arrigorriaga, Torreviejako Habaneren Nazioarteko Lehiaketa; horrez gain, Sari Nazionala irabazi zuen Torreviejako Habaneren eta Polifoniaren Nazioarteko Lehiaketa delakoan. Hainbat Koru Olinpiadatan parte hartu du, Lintzen (Austria), Bremenen (Alemania), Shiamenen (Txina), Gratzen (Austria)... eta Europako lehenengo korua eta Munduko hirugarren korua izan da, polifonian urrezko domina eskuratuta. Sochiko olinpiadetan (Errusia, 2016), sari nagusia eskuratu zuen: urrezko domina olinpikoa polifonia-modalitatean.

Nazioarteko zuzendariekin aritu izan da, Johan Duick, David Azurza, Albert Alcaraz eta Alberto Graurekin, besteak beste, eta korurako idatzitako obrak estreinatu ditu: Ahaztu Gabe triptikoa (Albert Alcaraz): Negu atzeratua, Rügen erasoaldia eta Emaiguzu bakea; Carol of the bells (Josu Elberdin); Tirikitauki (David Azurza); Akelarre (Jon Artetxe); Ikimilikiliklik (Tobin Stokes); eta Rumex Crispus (Alberto Grau).

Haurrentzako operak ere taularatu ditu: Noeren Ontzia (Benjamin Britten), El planeta todo al revés (Gorka Sierra), Horra Mari ipuina (David Azurza), Jolasean (Josu Elberdin), eta, berriki, Adiemus (Carl Jenkins),.BIOS orkestrarekin eta Aukeran dantza-taldearekin batera, Urdaibaiko biosferaren 25. urteurrenaren ospakizunerako ABAO –rekin Werter operan parte hartu du eta "Txano Zuritzu" obra estrenatu euskaraz eta gaztelaniaz. Kurtso honetan Kukai Dantza taldearen Erritu obran parte hartu du.

Gaudeamus Korala de Gernika - Lumo fue creada en 1994 por su directora Julia Foruria. En la actualidad lo forman 55 niños y jóvenes que disfrutan de la música coral con amplio repertorio de diferentes estilos.

Desde sus inicios ha participado en numerosos festivales nacionales e internacionales, logrando primeros puestos en el Certamen Antigua Abesbatzak, Abesbatzen leihaketa Arrigorriaga, Certamen Juvenil Internacional de habaneras de Torrevieja y Premio Nacional en el Certamen Internacional de Habaneras y Polifonía de Torrevieja. Ha participado en las Olimpiadas Corales de Lintz (Austria), Bremen (Alemania), Shiamen (China), Gratz (Austria) quedando clasificado como el primer coro Europeo y Tercero del mundo con medalla de oro en polifonía. En las olimpiadas de Sochi (Rusia 2016) ha conseguido el mayor galardón: el oro olímpico en la modalidad de polifonía. Ha trabajado con directores internacionales como Johan Duick, David Azurza, Albert Alcaraz y Alberto Grau, entre otros y estrenado obras escritas para el coro: El tríptico Ahaztu Gabe que contiene las siguientes obras Negu atzeratua, Rügen erasoaldia y Emaiguzu bakea (Albert Alcaraz), así como Carol of the bells (Josu Elberdin) Tirikitauki (David Azurza), Akelarre (Jon Artetxe), Ikimilikiliklik (Tobin Stokes) y Rumex Crispus (Alberto Grau).

Ha puesto en escena las óperas infantiles El Arca de Noé (Benjamin Britten), El planeta todo al revés (Gorka Sierra), el cuento Horra Mari (David Azurza), Jolasean (Josu Elberdin) y recientemente la obra Adiemus (Carl Jenkins) junto a la orquesta BIOS y el grupo de danza Aukeran para el 25 aniversario de la biosfera de Urdaibai. Ha participado con la ABAO en la opera Werter y estrenado “Txano Zuritzu” en sus dos versiones euskera y castellano así como junto a Kukai Dantza en la obra Erritu.

# Ensemble Kuraia

1997an María Eugenia Luc-ek sortu zuen Bilbon, eta egun bertako zuzendari artistikoa da. Gure garaiko musikagileen obrak jakitera ematea da taldearen lehentasuna. Horretarako enkarguak egiten ditu, difusio programak eta hainbat erakunderekin proiektu pedagogikoak garatzen ditu, esate baterako Berlineko Klangzeitort-ekin, Bilboko Guggenheim museoarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin.

Musika garaikidearen inguruko hainbat jaialdi eta ekitalditan parte hartu izan du Europan (Espainia, Italia, Alemania) eta Latinoamerikan (Mexiko eta Peru).

Ensemble Kuraia, Kuraia jaialdiko eta Bilboko J.C. Arriaga Kontserbatoriokoa talde egoiliarra da. Bere azken diskoa “De aire y luz” (Orpheus) María Eugenia Luc-ren musika ziklo integralaren izen berbera du, eta 2016an Melómano de Oro saria jaso zuen.

2014an Yoko Ono artistarekin parte hartu zuen “Sky piece to Jesus Christ” performance-an. 2011en “Hamar” DVDa grabatu zuen, Gabriel Erkorekaren obrekin, eta Fundación BBVAren (Sintonía zigilua) babesarekin. Luis de Pablo eta Félix Ibarrondori buruzko dokumentalak grabatu zituzten, eta ganberako opera eta musika antzezlan ezberdinak estreinatu izan dituzte. RNE-Radio Clasica-l eta Latino Amerikako hainbat irratik Ensemble Kuraiaren lanak zuzenean eman dituzte.

El Ensemble Kuraia de Bilbao fue fundado en 1997 por la compositora María Eugenia Luc, su actual directora artística. El grupo tiene como prioridad difundir las obras de los compositores de nuestro tiempo y dotarles de un conjunto profesional de excelente calidad con el cual colaborar estrechamente. Ensemble Kuraia actúa regularmente en importantes festivales y eventos dedicados a la música contemporánea en Europa y América latina: Universität der Künst y Hochschule für Musik de Berlín, Labirinti sonori (Parma, Italia), Conservatorio de Milán (Italia), Music around (Strasbourg, Francia) Arsonic (Mons, Bélgica), Premios Fundación SGAE-CNDM, Festival de Alicante, Temporada del CNDM, Auditorio del Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía y Teatros del Canal (Madrid), Ciclo Fundación BBVA y Museo Guggenheim de Bilbao, Quincena Musical de San Sebastián, Festival de Música Contemporánea de Córdoba, L’Auditori de Barcelona, Temporada de conciertos Rondó (Milano y Monza, Italia), Centro Nacional de las Artes (México D.F.), FIMCC de Lima (Perú), entre otros.

La crítica ha elogiado en varias ocasiones al conjunto de Bilbao: “uno de los ensembles de música contemporánea de referencia en España” (Scherzo); “todo con excelente interpretación del Ensemble Kuraia” (Ritmo); “unos músicos fantásticos” (Diario Información); “un excelente conjunto” (Doce notas), “sólido y muy capaz” (El Diario Vasco), “de muy alta calidad” (El comercio, Lima).

Ensemble Kuraia es la agrupación residente del festival Kuraia y del Conservatorio “J.C. Arriaga” de Bilbao.

Sus proyectos se distinguen por calidad, versatilidad e innovación. En 2014 ha colaborado con la artista Yoko Ono en su performance “Sky piece to Jesus Christ” con motivo de la exposición dedicada a la artista en el Museo Guggenheim de Bilbao.

En 2015 se ha presentado su disco “De aire y luz” (sello Orpheus), integral del homónimo ciclo musical de María Eugenia Luc. El disco, recibido con excelentes críticas en todos los medios especializados, fue galardonado con el Melómano de Oro en 2016.

Ensemble Kuraia realiza encargos a los compositores y desarrolla programas de difusión de la música contemporánea y proyectos pedagógicos en colaboración con Musikene, Klangzeitort de Berlín, Conservatorio de Milán, Conservatorio Superior de Pamplona, el Museo Guggenheim de Bilbao y la Universidad del País Vasco (UPV-EHU). Ha impulsado la realización de documentales sobre Luis De Pablo y Félix Ibarrondo (programados en varias ocasiones por el canal de televisión autonómico EITB), además de estrenar producciones de óperas de cámara y de obras de teatro musical (entre las cuales destacan algunas obras maestras del siglo XX como “La historia del soldado” de Stravinski y la ópera del compositor checo Viktor Ullmann “Der Kaiser von Atlantis”).

Los conciertos del Ensemble Kuraia han sido transmitidos en directo por RNE-Radio Clásica y emisoras de América latina.

Entre los muchos compositores que han colaborado personalmente con Kuraia figuran: Luis De Pablo, Félix Ibarrondo, Ramón Lazkano, Joan Guinjoan, Leonardo Balada, José Manuel López López, Cesar Camarero, y David Del Puerto. Ensemble Kuraia recibe el apoyo de INAEM, Gobierno Vasco, Diputación Foral de Vizcaya, Ayuntamiento de Bilbao, AIE, Musikabulegoa, Fundación SGAE e Instituto Vasco Etxepare.



# David Azurza Aramburu, zuzendaria



Tolosan jaioa (Gipuzkoa) 1968. urtean. Arte Ederretan lizentziatua (Zaharberritzea).

Tolosako Hodeiertz abesbatzan hasten da kantuan tenor gisa eta gero Isabel Alvarezekin kontratenore bezala trebatzen da (Donostian)

Goi Mailako Kantu Ikasketak bere kasa burutzen ditu Madrilgo Real Conservatorio Superior-en, non, kantuko espezialitatean Ikasketen Amaierako Ohorezko Saria eskuratzen duen eta Lucrecia Arana sari ezohikoa ere bai.

Capilla Peñaflorida, (antzinako musikan espezializatua) eta KEA (musika garaikidean espezializatua) ahots taldeetako kide da. Horiekin guztiekin ahots polifoniako proiektu zein grabaketa ugaritan parte hartu du maila nazional eta baita internazionalean ere. Beste ahots talde askorekin ere lan egin du beste zenbait proiektutan.

Bakarlari gisa ahots zein instrumentu talde ugaritan, operetan, musikaletan eta antzerkietan parte hartu du antzezleku nazional eta internazional onenetan.

1989tik 2011arte Tolosako Hodei Truk haur-gazte abesbatza zuzentzen du eta Hodei emakumezkoen abesbatza 2010etik. Bergarako Orfeiko eta haren gazte abesbatzeko zuzendari izan da (1993-2006), Lausardi abesbatza sinfonikoko zuzendaritza lana beste zuzendari batekin elkarbanatu zuen (2000-2006) eta abesbatza tailer ugaritako zuzendari gonbidatua ere izan da.

Ahots teknika eta kantu irakaslea da, ahotsari buruzko hizlari eta artikulugilea estatuko Kontserbatorio, Unibertsitate, Elkarte eta abesbatza elkarteek antolaturiko ikastaro eta ekintza ugaritan. Baita atzerraldian ere (Argentinan eta Frantzian ad.) Azpimarratzekoa da Korurako Ahots Teknikaren didaktika izeneko ikastaroaren garapen eta sorkuntza, Euskal Herriko Unibertsitatean irakatsia eta baita Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartean ere, 2011ean.

2016. urtetik aurrera Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko burua da eta 2018. urtetik aurrera Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko koordinatzailea da.

Konpositore bezela bere jarduera ahots arlora mugatzen da. Ehun bat konposizio, abesbatzetarako moldaketa eta harmonizazio burutu ditu.

Bere obrak mundu guztiko abesbatza ezberdinek interpretatzen dituzte eta Oihu Hau Musikan argitaratzen dira, David Azurzak 2004an bere musika hedatzeko asmoz sortu zuen argitaletxean.

Nacido en Tolosa (Gipuzkoa) en 1968. Es licenciado en Bellas Artes (Restauración).Se inicia en el canto como tenor en el coro Hodeiertz de Tolosa para pasar después a formarse como contratenor con Isabel Alvarez (en San Sebastián)

Cursa estudios Superiores de Canto como alumno libre en el Real Conservatorio Superior de Madrid donde obtiene el Premio de Honor fin de carrera en la especialidad de canto y el premio extraordinario Lucrecia Arana.

Es miembro de los grupos vocales Capilla Peñaflorida (especializado en música antigua) y KEA (especializado en música contemporánea) con los que ha participado en innumerables proyectos y grabaciones de polifonía vocal en el ámbito nacional e internacional. También ha colaborado con infinidad de grupos vocales en otros tantos proyectos.

Como solista ha intervenido con gran cantidad de grupos vocales e instrumentales, óperas, musicales y teatro en los mejores escenarios nacionales e internacionales, entre los que destacan el estreno de óperas contemporáneas en papeles protagonistas.

Desde 1989-2011 dirige el coro infantil-juvenil Hodei Truk de Tolosa y el coro femenino Hodei desde 2010. Ha sido director del Orfeón Bergarés y de su coro juvenil (1993-2006), codirector del coro sinfónico Lausardi (2000-2006), así como director invitado en infinidad de talleres corales por toda la geografía nacional, Europa y América.

Es profesor de técnica vocal y canto, conferenciante y articulista sobre la voz en innumerables cursos y actividades organizadas por Conservatorios, Universidades, Federaciones y agrupaciones corales de todo el Estado y del extranjero.

Desde 2016 es presidente de la Federación de coros de Gipuzkoa y asimismo gestiona desde 2018 las actividades de la Confederación de Coros del País Vasco.

